

BIZKAIKO ALDIZKARI OFIZIALA

BOLETIN OFICIAL DE BIZKAIA

Lehenengo zatia / Primera parte

Legezko Gordailua / Depósito Legal BI-1958-1 - ISSN. 1134-8720

BAO 253. zk. 1996, abenduak 31. Asteartea


— 18993 —

BOB núm. 253. Martes, 31 de diciembre de 1996

Laburpena / Sumario

Orrialdea / Página

I. Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Adminis- trazioa:	18993	I. Administración Foral del Territorio Histórico de Bizkaia:
— Batzar Nagusiak	—	— Juntas Generales
— Foru Aldundia:	18993	— Diputación Foral:
— Xedapen orokorrak	18993	— Disposiciones generales
— Iragarkiak	—	— Anuncios
II. Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Adminis- trazioa	19029	II. Administración Local del Territorio Histórico de Bizkaia
III. Euskal Herriko Autonomi Elkarteko Adminis- trazioa	—	III. Administración Autónoma del País Vasco
IV. Estatuko Administrazio Orokorra	—	IV. Administración General del Estado
V. Justiziako Administrazioa	—	V. Administración de Justicia
VI. Bestelako Herri Administrazioak	—	VI. Otras Administraciones Públicas
VII. Beste zenbait	—	VII. Varios



BIZKAIKO ALDIZKARI OFIZIALA

BOLETIN OFICIAL DE BIZKAIA

Lehenengo zatia / Primera parte

Legezko Gordailua / Depósito Legal BI-1958-1 - ISSN. 1134-8720

BAO 253. zk. 1996, abenduak 31. Asteartea

— 18993 —

BOB núm. 253. Martes, 31 de diciembre de 1996

Laburpena / Sumario

Orrialdea / Página

I. Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Adminis- trazioa:	18993	I. Administración Foral del Territorio Histórico de Bizkaia:
— Batzar Nagusiak	—	— Juntas Generales
— Foru Aldundia:	18993	— Diputación Foral:
— Xedapen orokorrak	18993	— Disposiciones generales
— Iragarkiak	—	— Anuncios
II. Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Adminis- trazioa	19029	II. Administración Local del Territorio Histórico de Bizkaia
III. Euskal Herriko Autonomi Elkarteko Adminis- trazioa	—	III. Administración Autónoma del País Vasco
IV. Estatuko Administrazio Orokorra	—	IV. Administración General del Estado
V. Justiziako Administrazioa	—	V. Administración de Justicia
VI. Bestelako Herri Administrazioak	—	VI. Otras Administraciones Públicas
VII. Beste zenbait	—	VII. Varios

I. Atala / Sección I

Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Administrazioa Administración Foral del Territorio Histórico de Bizkaia

Foru Aldundia / Diputación Foral Xedapen orokorrak / Disposiciones generales

Gizartekintza Saila

Bizkaiko Foru Aldundiaren abenduaren 17ko 124/96 FORU DEKRETUA, Gizarte-Hezkuntzaren arloan Haur, Gazte eta Familien alde esku hartzeko Planaren egitarauetarako Bizkaiko Foru Aldundiak emango dituen dirulaguntzen 1997ko deialdi publikoa onetsi dituen.

ZIOEN AZALPENEA

Euskal Herriko Autonomi Estatutuak, Espainiako Konstituzioaren 148.1.20. artikulua garatzean, gizarte gaietarako eskumen eskusiboa eman dio Autonomia Erkidegoari. Autonomi Estatutuak berak Euskal Herriko herri botereei beren beregi agintzen die herri-tarren bizimoduaren hobekuntza eta gizarte ongizatea sustatzea-

Departamento de Acción Social

DECRETO FORAL número 124/96, de 17 de diciembre de la Diputación Foral de Bizkaia, por el que se aprueba la convocatoria pública de subvenciones de la Diputación Foral de Bizkaia para programas del Plan de Intervención Socio-Educativa con Infancia, Juventud y Familia en el año 1997.

EXPOSICION DE MOTIVOS

El Estatuto de Autonomía del País Vasco atribuye a la Comunidad Autónoma la competencia exclusiva en materia social, desarrollando en este punto el artículo 148.1.20 de la Constitución Española. El propio Estatuto de Autonomía contiene un mandato expreso para que los poderes públicos vascos, en el ámbito de sus



ren aldeko politika bultza dezatela, bakoitzak bere eskumeneko eremuan.

Eusko Legebiltzarrak gizarte zerbitzuei buruz eman berri duen legeak, urriaren 18ko 5/1996 Legeak, gizarte zerbitzuen sistemaren antolamendua ezarri du. Administrazio guztien eskumenak mugatu ditu, gizarte zerbitzuetan Gizarte Zerbitzu Espezializatuak eta Oinarriko Gizarte Zerbitzuak bereizi, eta berorien eginkizunak deskribatu ditu; bestalde, argiago definitu ditu Herri Izakien eskumenak. Hainbat berrikuntza dakar gizarte zerbitzuen arloko aurreko legearen aldean, maiatzaren 20ko 6/1982 Legearen aldean.

Urriaren 18ko 5/1996 Legeak Aldundiei eskumena eman die euren lurralde eremuetan gizarte zerbitzuen egitarauak egiteko, eta bai Udalek gizarte zerbitzuak kudeatzen eta garatzen parte har dezaten sustatzeko ere.

Gizarte zerbitzuen jarduna eraentzen duten abiaburuetariko baten arabera, aurrearreta behar da marginaziorik izan ez dadin. Horregatik, Gizartekintza Sailak Bizkaiko Lurralde Historikoan adingabekoen egoera hobetzea helburu duten jarduerak garatu ditu, Erkidego-Eskuhartzeetarako Planaren bitartez.

Gaur egun, Kode Zibila zati batez aldarazi duen Adingabekoen Babes Juridikoari buruzko urtarrilaren 15eko 1/1996 Legean eta Judiziamendu Zibilari buruzko Legean ezarrita dagoenez, herri botereek adingabekoen egoera pertsonal eta sozialean eragiten duten arrisku faktoreak ezabatzen saiatu behar dute, eta adingabekoen eta haien familien babesa sustatu.

Bizkaiko Foru Aldundiaren martxoaren 5eko 27/1996 Foru Dekretuaren bidez Gizartekintza Sailaren Araudi Organikoa onetsi da. Dekretu horrek 11. artikuluan dioenez, Gizartekintza Sailak eskumena dauka adingabekoak babestea helburu duten jarduerak politiko eta administratiboak sustatu, koordinatu, zuzendu eta burutzeko. Eginkizun horiek Haur, Gazte, Familia eta Emakumeen Zerbitzuari eman zaizkio dekretuan. Hain zuzen ere, Haur eta Gazteei Erakunde Babesa emateko eta haiek familiaratzeko Atalaren eginkizuna da itzal gabe dauden adingabekoei gizarte eta erakunde babesa ematea eta adingabekoak egoera horretara iritsi ez daitezkeen aurretiaz neurriak hartzea.

Horregatik egin da «Gizarte-Hezkuntzaren arloan Haur, Gazte eta Familien alde esku hartzeko Plana», dirulaguntzei buruzko foru dekretu honi I. eraskin gisa batu zaiona.

Bizkaiko Foru Aldundiak laguntza eta dirulaguntza egitarau batzuk ezarri ditu, eta horiek banatzeko behar diren deialdi publikoak onetsi.

Aurrekontuei buruz indarrean dirauten lege xedapenen testu bateginak, otsailaren 24ko 1/1987 Foru Dekretu Arauemailearen bidez onetsi denak, egun indarrean dagoen testuaren 96. artikuluan dioenez, laguntza eta dirulaguntzak ematerakoan publikitate, lehia eta objektibotasunaren abiaburuei jarraitu behar zaie, eta emakidak araupetzen dituzten oinarriak foru dekretuen bidez onetsi behar dira.

Biltzar Nagusiek oraindik onetsi gabe dute Bizkaiko Lurralde Historikoaren 1997ko ekitaldiko Aurrekontu Orokorra. Dena den, Bizkaiko Foru Aldundiaren azaroaren 16ko 121/1988 Foru Dekretuan ezarri denez, gastuei buruzko espedienteak Aurrekontu Orokorra onetsi baino lehen tramita daitezke, baina horretarako Aurrekontuan kreditu egokia eta nahikoa dagoela agertarazten duen ziurtapena eskatzen da.

Horregatik, Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa, Araubide eta Jardunbideari buruzko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauaren 17 eta 64.3. artikuluetan eman zaizkidan ahalmenak darabiltzadala, Gizartekintza Saileko foru diputatuak proposaturik, eta Foru Aldundiak 1996ko abenduaren 17ko bilan eztabaidatu eta onetsi ondoren, hauxe

respectivas competencias, promuevan una política orientada a fomentar la mejora de las condiciones de vida y el desarrollo del bienestar social de los ciudadanos.

La nueva Ley del Parlamento Vasco de Servicios Sociales, Ley 5/1996, de 18 de octubre, establece la organización del sistema de servicios sociales, delimitando las competencias de cada Administración y consolidando la distribución de los servicios sociales, en Servicios Sociales Especializados y Servicios Sociales de Base, describiendo, asimismo, sus funciones; por otra parte, define más claramente las competencias de los diferentes Entes Públicos, constituyendo una innovación respecto a la anterior Ley de Servicios Sociales, Ley 6/1982, de 20 de mayo.

La Ley 5/1996, de 18 de octubre, atribuye competencias a las Diputaciones para la Programación de los Servicios Sociales en su ámbito territorial, así como la promoción de la participación de los Ayuntamientos en la gestión y desarrollo de los Servicios Sociales.

Uno de los principios que ha regido y rige la actuación de los servicios sociales es el de la prevención de la marginación, como consecuencia de ello Gizartekintza Saila-Departamento de Acción Social, a través del Plan de Intervención Comunitaria, ha desarrollado una serie de actividades encaminadas a mejorar la situación del menor en el Territorio Histórico de Bizkaia.

En la actualidad la Ley 1/1996, de 15 de enero, de Protección Jurídica del Menor, de modificación parcial del Código Civil y de la Ley de Enjuiciamiento Civil, prevé la actuación de los poderes públicos destinada a disminuir los factores de riesgo que inciden en la situación personal y social del menor, promoviendo la protección del menor y de su familia.

El Decreto Foral n.º 27/1996 de 5 de marzo de la Diputación Foral de Bizkaia, por el que se aprueba el Reglamento Orgánico de Gizartekintza Saila-Departamento de Acción Social, en su artículo 11 señala que este Departamento es competente para promover, coordinar, dirigir y ejecutar la actividad política y administrativa en materia de protección de menores, atribuyendo estas funciones al Servicio de Infancia, Juventud, Familia y Mujer, y correspondiendo a la Sección de Protección Institucional e Integración Familiar de la Infancia-Juventud el ejercicio de las tareas encaminadas a lograr la protección social e institucional de los menores de edad en situación de desamparo y la acción preventiva a fin de evitar esta situación.

Como consecuencia de lo expuesto se ha elaborado el «Plan de Intervención Socio-Educativa con Infancia, Juventud y Familia», que se incorpora como Anexo I, del presente Decreto Foral de Subvenciones.

La Diputación Foral de Bizkaia ha establecido varias líneas de ayudas y subvenciones, a través de la aprobación de las correspondientes convocatorias públicas.

El Texto Refundido de las Disposiciones Vigentes en Materia Presupuestaria, aprobado por Decreto Foral Normativo 1/1987, de 24 de febrero, señala en su redacción actual, en el artículo 96, que la concesión de ayudas y subvenciones se ajustarán a los principios de publicidad, concurrencia y objetividad, y que las bases reguladoras de la concesión se aprobarán por Decreto Foral.

En el presente caso, los Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Bizkaia para el ejercicio presupuestario 1997 aún no han sido aprobados por las Juntas Generales, no obstante el Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia, n.º 121/1988, de 16 de noviembre, prevé que se tramiten los expedientes de gasto con anterioridad a la aprobación de los Presupuestos Generales, exigiéndose no obstante certificación en la que se haga constar que existe crédito adecuado y suficiente en los Presupuestos.

En su virtud y en uso de las facultades conferidas por los artículos 17 y 64.3 de la Norma Foral número 3/1987, de 13 de febrero, sobre Elección, Organización, Régimen y Funcionamiento de las Instituciones Forales del Territorio Histórico de Bizkaia, a propuesta de la Diputada Foral Titular de Gizartekintza Saila-Departamento de Acción Social y previa deliberación y aprobación de la Diputación de fecha 17 de diciembre de 1996.

1. artikulua

XEDATU DUT

Foru dekretu honetan onetsi eta araupetu da Bizkaiko Foru Aldundiak Gizartekintza Sailaren bitartez 1997ko aurrekontu-eki-

DISPONGO

Artículo 1

Por medio del presente Decreto Foral se aprueba y regula la Convocatoria Pública de Subvenciones a conceder por la Diputación

taldian zehar emango dituen dirulaguntzen deialdi publikoa. Dirulaguntza horiek toki erakundeen eta partzuergoen Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek kudeatu beharreko egitarau batzuk finantzatzeko erabiliko dira, Gizarte-Hezkuntzaren arloan Haur, Gazte eta Familien alde esku hartzeko Plana garatuko duten egitarauak, alegia, Plana I. eraskin gisa batu zaio dekretu honi.

Egitarauen burutzapenean Gizarte-Hezkuntza arloko Eskuhartzetxe Lantaldeek eta Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek parte hartu behar dute.

Gizartekintza Sailaren Haur, Gazte, Familia eta Emakumeen Zerbitzuak egoki den laguntza teknikoa emango du egitarauak burutzeko.

2. artikulua

Xedapen honen ondoretarako, Gizarte-Hezkuntzaren arloan Haur, Gazte eta Familien alde esku hartzeko Egitarautzat joko dira 1. artikuluan aipaturiko planarekin bat datozen helburuak dituztenak: gizarte, familia edota erkidego ezegokietan bizi diren adingabekoen gabezia pertsonalak, afektiboak, famili, heziketa eta gizarte premiak arindu edo asetzea eta halako gabeziarik izan ez dadin aurreneurriak jartzea, eta, gainera, adingabekoen ongizatea sustatzea euren nortasuna bete-betean garatu ahal dezaten. Hori guztia adingabekoaren eta beraren familiaren aldeko gizarte-hezkuntzako ekintzaren bitartez lortu behar da.

3. artikulua

Gizarte-Hezkuntzaren arloan esku hartzeko Planaren egitarauen burutzapenean bai Gizarte-Hezkuntza arloko Eskuhartzetxe Lantaldeek (berauek Planean eskatzen diren ezaugarriak eduki behar dituzte) eta bai toki erakundeen eta partzuergoen Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek parte hartuko dute.

Toki erakundeek eta partzuergoek kudeatu eta betearaziko dute zerbitzu publiko hau. Horregatik, beraiek erabaki behar dute zerbitzua nola kudeatu behar den eta, hala dagokionean, Gizarte-Hezkuntza arloko Eskuhartzetxe Lantaldeak kontratzeko erarik egokiena zein den.

4. artikulua.—Dirulaguntzen jasotzaileak

Bizkaiko Lurralde Historikoko toki erakundeek eta partzuergoek jaso ditzaketek dirulaguntzak, behar bezala eskatuz gero. Gizarte zerbitzuen kudeaketarako mankomunitate edo partzuergoren baten partaide diren udalek ezin izango dute dirulaguntzarik euren kasa eskatu.

5. artikulua.—Finantzatzeko era

Bizkaiko Foru Aldundiak, Gizartekintza Sailaren bitartez, gizarte-hezkuntza arloko Eskuhartzetxe Lantaldeetako hezitzaileek egiten dituzten lansaioen benetako kostuaren %70a ordaintzeko dirulaguntza emango du, irizpide hauek kontutan harturik:

—Foru dekretu honen II. eraskinean zehaztu den moduan erabakiko da toki erakunde edo partzuergo bakoitzari zenbat lansaio ordaintzeko dirulaguntza eman behar zaion.

—Diruz lagunduko diren lansaioen gehieneko ordu kopurua urteko mila sei ehun eta hirurogeita laukoa (1.664) izango da.

—Diruz lagunduko diren urteko 1.664 orduko lansaioetariko bakoitzak gehienez hiru milioi eta hirurehun mila (3.300.000) pezetako kostua izango du.

Azkenik, aurrekontu-partiden baliagarritasuna eta aurkezten diren eskabideen kopurua kontutan izanik, diruz lagundutako lansaio gehiago esleitu ahal izango zaizkio berriro ere, II. eraskinean ezarri direnak baino lansaio gehiago eskatuak dituzten toki erakunde edo partzuergoei. Kontutan hartuko da kasuan kasu biztanle adingabekoak zenbat diren, eta Birgizarteratzeko Gutxieneko Diru Sarreraz onuratsen diren familietakoa diren ala ez.

6. artikulua.—Eskabideen aurkezpena

Toki araubideari buruzko arategian xedatu denaren arabera eskumena duenak aurkeztuko ditu eskabideak, edo, partzuergoaren kasuan, estatutuen arabera eginkizun hori duenak.

Toki erakunde edo partzuergoek eskabide bana egin behar dute, ezarriko diren eredu normalizatuen arabera.

Foral de Bizkaia a través de Gizartekintza Saila-Departamento de Acción Social durante el ejercicio presupuestario de 1997, destinada a financiar los Programas que gestionen los Servicios Sociales de Base de las Entidades Locales y de los Consorcios, para el desarrollo del Plan de Intervención Socio-Educativa, con Infancia, Juventud y Familia, que se incorpora, al presente Decreto como Anexo n.º I.

En la ejecución de dichos Programas deberán intervenir los Equipos de Intervención Socio-Educativa y los Servicios Sociales de Base.

El Servicio de Infancia, Juventud, Familia y Mujer de Gizartekintza Saila, Servicio Social Especializado, prestará el apoyo técnico que se considere oportuno en dichos programas.

Artículo 2

A los efectos de la presente Disposición se entiende por Programas de Intervención Socio-Educativa con Infancia, Juventud y Familia, aquéllos que conforme al Plan mencionado en el artículo 1, pretende prevenir y paliar los déficits personales, afectivos, familiares, educativos y sociales de los menores que se encuentran en entornos socio-familiares y comunitarios considerados no adecuados, y así mismo, promover su bienestar para conseguir su pleno desarrollo personal, todo ello mediante una acción socio-educativa con el menor y su familia.

Artículo 3

En la ejecución del Programa del Plan de Intervención Socio-Educativa, participan los Equipos de Intervención Socio-Educativa (quienes deben reunir las características exigidas en dicho Plan) y los Servicios Sociales de Base de las Entidades Locales y de los Consorcios.

Las Entidades Locales y los Consorcios son quienes gestionarán y ejecutarán este Servicio Público, decidiendo por tanto la forma de gestión del mismo y en su caso, la contratación más idónea del Personal de los Equipos de Intervención Socio-Educativa.

Artículo 4.—Destinatarios de las subvenciones

Podrán ser destinatarios de las Subvenciones las Entidades Locales y los Consorcios del Territorio Histórico de Bizkaia siempre que lo soliciten debidamente, no encontrándose legitimados para presentar solicitud individualizada de la subvención, los Ayuntamientos que formen parte para la gestión de Servicios Sociales, bien de una Mancomunidad, o de un Consorcio.

Artículo 5.—Forma de financiación

La Diputación Foral de Bizkaia a través de Gizartekintza Saila-Departamento de Acción Social, subvencionará el 70% del coste real de las jornadas de educador/es, educadora/s de los Equipos de Intervención socio-educativa, atendiendo a los siguientes criterios:

—El número máximo de jornadas a subvencionar a cada Entidad Local o Consorcio queda determinado en el Anexo II del presente Decreto Foral.

—El número de horas máximo de cada jornada a subvencionar será de mil seiscientos sesenta y cuatro (1.664) horas anuales.

—El coste máximo de cada jornada anual, de 1.664 horas, que será objeto de ayuda económica será de tres millones trescientas mil (3.300.000) pesetas.

Por último, teniendo en cuenta las partidas presupuestarias disponibles y las solicitudes presentadas, se podrá efectuar una reasignación nueva de jornadas a subvencionar entre las Entidades Locales o Consorcios que hayan solicitado un número de jornadas mayor al establecido en el Anexo II, teniendo en cuenta la población menor de edad y su pertenencia a familias beneficiarias del Ingreso Mínimo de Inserción

Artículo 6.—Presentación de solicitudes

Las solicitudes deberán ser presentadas por quien según lo dispuesto en la normativa de Régimen Local sea competente o por quien se señalen en los Estatutos en el supuesto de los Consorcios.

Se deberá cumplimentar una solicitud por cada Entidad Local o Consorcio en los modelos normalizados que se dispongan.

Eskabideak Gran Vía 26ko beheko solairuan bilduko dira eta Bizkaiko Foru Aldundiaren Gizartekintza Sailaren Erregistroan aurkeztuko.

Halaber, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Komunari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38. artikuluan ezarri diren bideetarik edozein erabili ahal izango da eskabideak aurkezteko.

Eskabideak aurkezteko epea hiru hilekoa izango da, eta foru dekretu hau indarrean jartzen den egunaren biharamunetik hasita zenbatuko da.

7. artikulua.—Aurkeztu beharreko agiriak

Eskabideekin batera agiri hauek aurkeztu behar dira:

—Gizarte-Hezkuntzaren arloan Haur, Gazte eta Familien alde esku hartzeko Planean adierazi diren alderdien diagnosi-ebaluazioa, garatu nahi den egitaraua bidezkozten duena.

—Eredu ofizialaren arabera eginiko memoria. Bertan, gizarte-hezkuntzako eskuhartzearen egitarauaren ezaugarriak azaldu behar dira eta beren beregi adierazi behar da zenbat profesional osatuko duten eskuhartze lantaldea, nolako koalifikazioa duten, hezitzaileek zenbat lansaiot egin behar dituzten eta familietan ala kalean lan egin behar duten.

—Onuradunen zerrenda edo, hala badagokio, onuradunen kopuruaren zerbatespena, eredu ofizialaren arabera egina.

—Toki erakundeak edo partzuergoak luzatutako ziurtagiria. Bertan ondorengoak agertaraziko dira:

- Egitarauaren kostuaren guztirako zenbatekoa eta xehekapena, eta batez ere, hezitzaileek egin behar dituzten lansaiot kopurua eta benetako kostua.

- Egitarauaren indarraldia (egitarauaren hasiera eta amaiera egunak adieraziko dira).

- Zerbitzua kudeatzeko modua.

—Lankidetzan jarduteko konpromezua, eredu ofizialaren arabera egina.

—Egitaraua garatuko duten langileen izenen zerrenda. Langile horiekiko lan harremanak eta berorien eginkizunak, ordainketa eta dedikazioa agertaraziko dira.

—Eredu ofizialaren arabera eginiko fitxa. Bertan erakundearen identifikazio fiskalerako kodearen eta kontu korrontearen datuak agertaraziko dira. Fitxak banketxearen zigilua edukiko du, eta berarekin batera identifikazio fiskalerako txartela aurkeztuko da.

8. artikulua.—Eskabideen ongitzea

Aurkezten diren agiriek okerren bat badute edo nahikoa ez badira, Gizartekintza Sailaren administrazio unitate eskudunak eskabidearen akatsak ongitzeko eskatuko die eskatzaileei, foru dekretu honetan eta beroni batutako eraskinetan ezarri den bezala. Horretarako hamar asteguneko epea emango die jakinarazpen egunetik hasita, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Komunari buruzko azaroaren 26ko 30/96 Legearen 71. artikuluan ezarri dena betetzeko. Eskatzaileak akatsak ongitu ezik, espediente artxibatu egingo da beste tramiterik egin beharrik izan gabe.

9. artikulua.—Ebazpena

Behin espediente instruitu ondoren, dirulaguntza emateko edo ukatzeko ebazpena emango da, zioen azalpen eta guzti, dirulaguntzaren zenbatekoa ezarriko da eta ebazpena legezko eran jakinaraziko zaie interesatuei. Dirulaguntza emateko eskumena organo desberdinek eduki dezakete, dirulaguntzaren zenbatekoaren arabera. Kontratazioetan bezala erabakiko da zein den organo eskuduna, otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauaren 73. artikuluan xedatu denez.

Dirulaguntza berau emateko ebazpenean beren beregi ezarriko diren helburuetarako erabili behar da oso-osoan.

Dirulaguntzen emakida, ukapen, aldarazpen edo iraungipenari buruz ematen diren ebazpenen aurka egiteko, legezko eta arauzko arautegi egokian ezarrita dauden errekurtsuak jarri ahal izango dira.

Oker materialak, egitatezko okerrak eta oker aritmetikoak edo noiz ongitu ahal izango dira ebazpen erantsien bitartez.

Las solicitudes se recogerán en Gran Vía, n.º 26, Planta Baja y se presentarán en el Registro de Gizartekintza Saila-Departamento de Acción Social de la Diputación Foral de Bizkaia.

Asimismo, podrán cursarse a través de cualquiera de las formas previstas en el artículo 38, de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

El plazo para la presentación de las solicitudes será de tres meses contados a partir del día siguiente de la entrada en vigor del presente Decreto Foral.

Artículo 7.—Documentación requerida

Con las solicitudes deberá presentarse la siguiente documentación:

—Evaluación diagnóstica que contemple los aspectos señalados en el Plan de Intervención Socio-Educativa con Infancia, Juventud y Familia y que justifique al Programa a desarrollar.

—Memoria, según modelo oficial, en la que se describan las características del Programa de Intervención Socio-Educativa, indicando expresamente el número de profesionales que componen el Equipo de Intervención y su cualificación, número de jornadas de/los educador/es, educadora/s y si son de familia o de calle.

—Relación de beneficiarios o, en su caso, estimación del número previsible de los mismos, según modelo oficial.

—Certificado expedido por la Entidad Local o Consorcio en el que se haga constar:

- Importe total y desglosado de los Programas y en particular el número de jornadas previstas de los educador/es educadora/s y el coste real de éstos.

- Plazo de vigencia del Programa (indicando la fecha de inicio del Programa así como la de su finalización).

- Forma de gestión del Servicio.

—Compromiso de colaboración según modelo oficial.

—Lista nominal del personal que interviene en el desarrollo del Programa, con indicación de la relación laboral establecida, funciones, remuneración y dedicación.

—Ficha, según modelo oficial, donde conste los datos del Código de identificación fiscal y de la cuenta corriente de la Institución, sellada por la Entidad bancaria y acompañada de fotocopia de la tarjeta de identificación fiscal.

Artículo 8.—Subsanación de solicitudes

Si la documentación aportada contuviera errores o fuera insuficiente, de acuerdo con lo establecido en el presente Decreto Foral y en los Anexos que forman parte integrante del mismo, la Unidad Administrativa competente de Gizartekintza Saila-Departamento de Acción Social procederá a reclamar de los solicitantes la subsanación de los defectos apreciados en la solicitud, otorgándoles un plazo de diez días hábiles a partir de su notificación, de acuerdo con lo previsto en el artículo 71 de la Ley 30/92, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y el Procedimiento Administrativo Común. De no hacerlo así, el expediente se archivará sin más trámite.

Artículo 9.—Resolución

Instruido el expediente se dictará la oportuna resolución motivada, concediendo o denegando la subvención solicitada, indicándose la cuantía de la misma y notificándose en legal forma a los interesados. En cuanto al Organismo competente para conceder la subvención, vendrá determinado por la cuantía de la subvención a conceder, siendo el Organismo competente el que lo sea para los supuestos de contratación, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 73 de la Norma Foral 3/1987 de 13 de febrero.

El importe de la Subvención concedida debe destinarse a los fines específicamente previstos en la resolución que la otorgue.

Las resoluciones que se dicten en relación a la concesión, denegación, modificación o extinción de las subvenciones serán susceptibles de los recursos establecidos por la normativa legal y reglamentaria aplicable.

Los errores materiales o de hecho y los aritméticos podrán en cualquier momento, subsanarse mediante resolución adicional.

10. artikulua.—Ordainkera

Toki entitate edo partzuergoei ordaintzeko agindu izenduna egingo da. Dirulaguntza ematearekin batera beraren zenbatekoaren %80a ordainduko zaie.

Gainerako %20a irailean ordainduko zaie. Hasieran jasotako kopurua zertarako erabili duten frogatzeko agiriak aurkeztuko dituzte, hau da, hezitzaileek egindako lan saioen kopurua eta hauen kostua egiaztatzen dituzten agiriak.

1997. urtearen azken hiruhilekoan ordainduko den kopurua erabilpenaren bidezko eta 1998ko urtarrilean egingo da.

11. artikulua.—Betebeharrak

Dirulaguntzen adjudikazioak jasotzen dituzten erakundeetarako bakoitzak bere dirulaguntzaren xedea den egitaraua garatu behar du, eta denek ere eraskinetan ezarri diren beharkizunak eta baldintzak bete behar dituzte. Halaber, Gizartekintza Sailak egingo dizkien egiaztapenak eta Ogasun eta Finantza Sailaren finantza kontrolak onartu behar dituzte.

Dirulaguntza jasotzaileek, gainera, eskabidean adierazitako datuei dagokien inguruabar edo ezustekoren bat gertatuz gero, Gizartekintza Sailari jakinarazi behar diote, baldin eta inguruabar horrek dirulaguntzaren jasoketa edota egitarauaren helburuen burutzapena funtsean ukitzen badu.

Gizartekintza Sailak ikuskapenak eta kontrolak egin ahal izango ditu, dirulaguntzak euren xedeetarako eta behar bezala erabiltzen diren jakiteko. Horretarako, berak egoki deritzen ebaluazio eta kontrol sistemak erabili ahal izango ditu.

Dirulaguntzen jasotzaileek, dirulaguntzen xede diren jardueri buruzko publikitatea egiten badute, agertarazi egin behar dute jarduera horiek Bizkaiko Foru Aldundiaren Gizartekintza Sailak dirulaguntzen dituela.

1998. urtearen lehen hiruhilekoan, Gizarte-Hezkuntzako Eskuhartzeko Egitarauaren garapen eta burutzapenari buruzko memoria aurkeztu behar da, III. eraskinean ageri den eredu ofizialaren arabera egina.

12. artikulua.—Ez-betetzeak

Jasotako kopuruak nola gastatu diren frogatzeko betebeharrak ez betetzea, dirulaguntza jasotzearen datuak aizundu edo maulara egitea, edo eskatutako baldintzak bete gabe dirulaguntza hartzea, horiek guztiak dirulaguntza ezeztatzeko kariak izango dira. Hala denean, dirulaguntza bera eta dirulaguntza ordaindu zenez gero sortutako berandutza korrituak itzultzeko eskatuko du Gizartekintza Sailak. Eskaerari jaramonik egiten ez bazaio, Gizartekintza Sailak premiamendu prozedurari ekingo dio, eta horrez gain, kasuan kasu egoki diren jarduketak zibilak, zigorrak jarduketak eta bestelakoak egin ahal izango ditu.

Dirulaguntzen adjudikatariei isuna ezarriko zaie baldin eta administrazio urratzeren bat egiten badute, indarrean dirauen foru arautegian dirulaguntza publikoen arloan tipifikaturik dauden urratze-etarikoren bat, hain zuzen. Isunaren zenbatekoa, gehienez, behar ez bezala lortu edo erabilitako edo erabilpena bidezko gabe utzitako kopurua halako hiru izango da.

Gizartekintza Saileko foru diputatuak indarreko arautegian dauden gainerako zehapenak ere ezarri ahal izango ditu.

13. artikulua.—Behar ez diren kobrantzak

Dirulaguntzen onuradunak eskubiderik izan gabe kopururen bat hartzea zor ez diren dirulaguntzen kobrantzatzat joko da.

Gizartekintza Saileko foru diputatuak eskumena izango du behar ez diren kobrantzak noiz egiten diren adierazteko eta, egoki denean, ordainketak eteteko eta dena delako dirulaguntza kitatzeko.

Artículo 10.—Forma de pago

La Ordenación del pago será nominativa a favor de las Entidades Locales y de los Consorcios, abonándose el 80% del importe de la subvención, cuando se conceda la misma.

El 20% restante será abonado en el mes de septiembre, debiéndose justificar el importe concedido con anterioridad, mediante la presentación de la documentación oportuna, en la que se acredite el número de jornadas trabajadas por los educador/es educadora/s, así como el importe de las mismas.

El importe abonado el último trimestre del año 1997 deberá ser justificado en enero de 1998.

Artículo 11.—Obligaciones

Las entidades adjudicatarias de subvenciones vendrán obligadas a desarrollar el Programa que fundamenta el otorgamiento de la subvención, y al cumplimiento de los demás requisitos y condiciones que se determinen en los Anexos, así como al sometimiento a las actuaciones de comprobación a efectuar por Gizartekintza Saila-Departamento de Acción Social y a las de control financiero correspondientes al Departamento de Hacienda y Finanzas.

Asimismo, los destinatarios de las subvenciones quedan obligados a poner en conocimiento de Gizartekintza Saila-Departamento de Acción Social cualquier circunstancia o eventualidad relativa a los datos declarados en la solicitud que pueda afectar sustancialmente a la percepción de la subvención o, en su caso, a la ejecución de los fines programados.

Gizartekintza Saila-Departamento de Acción Social se reserva la facultad de inspección y control sobre el destino y la adecuación de las subvenciones a las finalidades para las que fueron concedidas y podrá, en consecuencia, utilizar los sistemas de evaluación y control que considere oportunos.

Los destinatarios de las Subvenciones deberán hacer constar en la publicidad que, en su caso, realicen sobre las actividades objeto de la Subvención, que las mismas están subvencionadas por Gizartekintza Saila-Departamento de Acción Social de la Diputación Foral de Bizkaia.

Dentro del primer trimestre del año 1998 se deberá presentar una memoria, según modelo oficial recogido en el Anexo III, sobre el desarrollo y cumplimiento del Programa de Intervención Socio-Educativa.

Artículo 12.—Incumplimiento

El incumplimiento de la obligación de justificación de gasto de las cantidades concedidas, la obtención de la subvención mediante falseamiento de los datos aportados o cualquier otra actuación fraudulenta o sin reunir las condiciones requeridas para ello y el incumplimiento de las finalidades para las que fueron concedidas, constituirán causas determinantes de la revocación de la subvención y, en todo caso, del reintegro de su importe con la exigencia de interés de demora desde el momento del pago de aquellas, previo requerimiento de Gizartekintza Saila-Departamento de Acción Social, que, de no ser atendido, promoverá el correspondiente procedimiento de apremio, sin perjuicio de las actuaciones civiles, penales o de otro orden que en cada caso correspondan.

Quando los adjudicatarios de subvenciones incurran en cualquiera de las infracciones administrativas que, en materia de subvenciones públicas, tipifica la Normativa Foral vigente, serán sancionados mediante multa de hasta el triple de la cantidad indebidamente obtenida, aplicada o no justificada.

Asimismo, la Diputada Foral titular de Gizartekintza Saila-Departamento de Acción Social, podrá imponer las sanciones previstas en la normativa vigente.

Artículo 13.—Cobros indebidos

Se considerarán cobros indebidos de subvenciones cuando el beneficiario perciba devengos al respecto, sin derecho a ellos.

Corresponde a la Diputada Foral titular de Gizartekintza Saila-Departamento de Acción Social la competencia para declarar la situación de cobro indebido y, en su caso la suspensión de los pagos y la cancelación de la subvención de que se trate.

Behar ez den kobrantzarik eginez gero, indarreko arautegi arautpetzaile egokian zehazturiko prozedura erabiliko da dirua berreskuratzeke.

14. artikulua.—Aurrekontu partida

Dirulaguntza hauek emateko ekonomi baliabideak Bizkaiko Lurralde Historikoaren 1997ko Ekitaldiko Aurrekontu Orokorretik aterako dira. Aurrekontu partida honakoa da: Saila (03), Atala (0302), Egitaraua (310302), Ekonomikoa (43203). Dirulaguntzetarako esleituko den diru-kopuruaren muga partida horretako kreditu baliagarriarena izango da.

XEDAPEN IRAGANKORRA

Bizkaiko Foru Aldundiaren finantza-laguntzaz 1996. urtean Adingabekoekin Marginazioaren Aurrearretarako erkidegoaren gaineko eskuhartze planak kudeatu eta garatu dituzten toki erakunde eta partzuergoek, euren egoera foru dekretu honetan xedatu denari egokitu beharra izanez gero, egokitzapena egiten duten bitartean egitarau horiei eusteko dirulaguntza jaso ahal izango dute. Egokitzapena 1997. urtearen lehen hiru hilene barruan burutu beharko dute.

Dekretu hau indarrean jartzen denetik zenbatu beharreko hila-beteko epean eskatu beharko dute dirulaguntza. Eskabidean, ekonomi laguntza horren zenbatekoa eta berorren beharizanaren bidez-koketa azaldu eta zenbat denboran jaso nahi duten adierazi beharko dute.

Egokitzapen epean, aurreko ekitaldian emandako kopuruaren araberrako dirulaguntza emango zaie. Kopuru hori 1996rako dirulaguntzen deialdi publikoa onetsi duen uztailaren 2ko 93/96 Foru Dekretuan xedatu den moduan bidezko da. Lehen aipaturiko lantaldeak 1996. ekitaldian hitzarmenen bidez finantzatu badira, 1996ko ekitaldirako sinatu ziren hitzarmenetan ezarritako guztirako zenbatekoaren %49ko dirulaguntza emango da, egokitzapen epearen arabera.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Bakarra.—Foru dekretu honen lerrun berekoak edo beheragokoak izan eta honetan ezarritakoaren aurka doazen xedapen guztiak indargabeturik geratuko dira.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.—Gizartekintza Saileko foru diputatuari ahalmena eman zaio foru dekretu honetan eta beronen eraskinetan ezarri dena garatu, betearazi eta ezartzeko behar diren xedapen guztiak eman ditzan.

Bigarrena.—Foru dekretu honetan eta beronen eraskinetan arauteturik ez dagoen guztia ebazteko ordezko arau gisa, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Komunari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legean dauden arau orokorrak ezarriko dira, eta bai aurrekoekin bat etorri eta ezar daitezkeen indarreko beste lege xedapenak ere.

Hirugarrena.—Foru dekretu hau eta beronen eraskinak Bizkaiko Aldizkari Ofizialean osorik argitaratzen diren egunean jarriko dira indarrean.

Bilbon emana, 1996ko abenduaren 17an.

Diputatu Nagusia,
JOSU BERGARA

Gizartekintza Saileko foru diputatua,
INMACULADA LOROÑO ORMAETXEA

I. eraskina

HAUR, GAZTE ETA FAMILIEN GAINEAN GIZARTEARI ETA HEZKUNTZARI
BEGIRA ESKU HARTZEKO PLANA

1.—Gizarte Zerbitzuek haurren,
Gazteen eta Familiaren eremuan jarduteko marko orokorra

1.—Abiaturu orokorrak

Adingabekoekiko Gizarte Politika asko aldatu da azken urteetan. Gizarte Politika horren aldaketan eragile nagusia 21/87 Legea da; izan ere, lege horrek Kode Zibilarren eta Judiziamenduari buruzko Legearen artikulua ba-

En los supuestos de cobros indebidos, el procedimiento de reintegro será el que venga determinado en la correspondiente normativa reguladora vigente.

Artículo 14.—Partida presupuestaria

Los recursos económicos destinados a la concesión de estas subvenciones procederán de los Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Bizkaia correspondientes al Ejercicio 1997, con cargo a la Partida consignada como Departamento (03), Sección (0302), Programa (310302), Económico (43203), cuya asignación tendrá como límite el crédito disponible de la misma

DISPOSICION TRANSITORIA

Las Entidades Locales o los Consorcios, que durante el año 1996, y con la colaboración financiera de la Diputación Foral de Bizkaia, han gestionado y desarrollado Planes de Intervención Comunitaria orientada a la Prevención de la Marginación de Menores y necesiten ajustar su actuación a lo dispuesto en el presente Decreto Foral, podrán ser beneficiarios de una subvención destinada al mantenimiento de los citados programas durante el tiempo necesario para tal adecuación que no podrá exceder de los tres primeros meses del año 1997.

Para la obtención de la citada subvención deberán presentar en el plazo de (1) un mes desde la entrada en vigor del presente Decreto solicitud en este sentido, indicando el importe interesado, la justificación de la necesidad de la ayuda económica y el plazo para el que se solicita.

Durante el plazo de adecuación, se podrá subvencionar la cantidad proporcional a la concedida en el ejercicio anterior, justificando esta cantidad según lo dispuesto en el Decreto Foral n.º 93/96, de 2 de julio, por el que se aprueba la Convocatoria Pública de subvenciones para 1996. En el supuesto de que durante el ejercicio 1996 los citados Equipos se hayan financiado en virtud de Convenios, podrá subvencionarse el 49% del importe total contemplado en los Convenios suscritos para el ejercicio 1996, aplicado proporcionalmente al tiempo de adecuación.

DISPOSICION DEROGATORIA

Unica.—Quedan derogadas cuantas disposiciones de igual o inferior rango se opongan a lo establecido en el presente Decreto Foral.

DISPOSICIONES FINALES

Primera.—Se faculta a la Diputada Foral Titular de Gizartekintza Saila-Departamento de Acción Social para dictar cuantas disposiciones resulten procedentes en orden al desarrollo, ejecución y aplicación de lo previsto en el presente Decreto Foral y sus Anexos.

Segunda.—En todo lo no previsto en el presente Decreto Foral y sus Anexos, serán de aplicación supletoria las normas generales contenidas en la Ley 30/1992, de 26 de noviembre de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, así como las correspondientes disposiciones legales vigentes que resulten de concordante y pertinente aplicación.

Tercera.—Este Decreto Foral y sus Anexos entrarán en vigor el día en que se publiquen íntegramente en el «Boletín Oficial de Bizkaia».

Dado en Bilbao, a 17 de diciembre de 1996.

El Diputado General,
JOSU BERGARA ETXEBARRIA

La Diputada Foral del Departamento de Acción Social,
INMACULADA LOROÑO ORMAECHEA

Anexo I

«PLAN DE INTERVENCIÓN SOCIO-EDUCATIVA
CON INFANCIA, JUVENTUD Y FAMILIA»

I.—Marco general de actuación de los Servicios Sociales
en el Área de Infancia-Juventud y Familia

1.—Principios generales

La Política Social respecto a los Menores, ha vivido un cambio significativo en el transcurso de los últimos años, motivado principalmente por las modificaciones que la Ley 21/87 efectúa sobre determinados artículos

tzuk aldatzen ditu, Familiaren Adopzioaren eta Harreraren gainekoak alegia.

Duela gutxiago, urtarrilaren 15ean, egin da 1/96 Legea, Adingabekoaren Babes Juridikoari eta Kode Zibilarren eta Judiziamendu Zibilarren Legearen aldaketa partzialari buruzkoa. Lege horrek nazioarteko itunbenetan haurrei buruz dauden eskubideen katalogoetara bidali ditu adingabekoaren oinarriko eskubideak. Lege horrek oinarrizko eskubideok hobetu eta bateratu ditu gaur egungo sistema juridikoan. Nazioarteko itunben horiek Espainiak berretsiak dira. Era berean, lege horrek agerian utzi du Herri Administrazioek adingabekoei laguntza egokia eman beharra; laguntza hori eskubide horiek burutzeko da.

Zentzu horretan eginak dira abiaburu artezkariak, herri botereek zuzen jardutekoak. Honakook dira abiaburuak:

- Adingabekoaren onuraren nagusitasuna.
- Adingabekoaren garapen pertsonalaren kalterako egoera guztiak prebenitzea.
- Adingabekoa bere jatorrizko familiaren baitan egotea; hala ere, abiaburu honek ez du balio famili giro hori haren txarrerako bada.
- Adingabekoa familiaratu eta gizarteratzea.
- Bera babesteko objektibotasun, inpartzialtasun eta segurtasun juridikoak; neurriak hartzeko izaera kolegiatu eta diziplinartekoa bermatuko da.
- Herritarrak sentikor bihurtaraztea adingabekoa defentsarik gabe dagoen egoeren aurrean.
- Gizartearen partehartzea eta elkartasuna bultzatzea.

Gure inguruko beste herri batzuetan tradizio luzeagoa dago haurren babesari dagokion arlo honetan. Herri horietan abiaburu berdinak daude eta agerian utzia da haurrak babesteko sistemaren xede nagusia: haurra babestea, baina familiaren batasunari eta egiturari zerbitzu batzuen bidez eutsi eta laguntzeko, familia egokia denean; zerbitzu horiek familiaren egoera tinkotzera eta seme-alabekiko ahaide-erantzukizunak betetzera gurasoak bultzatzea zuzenduak dira.

Horrek guztiak oso ahalegin handia egin beharra dakar aldean: familiaren desantolaketa eta desegituraketa gertatu baino lehenagoko politikak garatu behar dira; eta, hondamendi hori hasiz gero, goiz esku hartzeko politika ere bai. Izan ere, familia hondatzea ekidin behar da eta soluzio egokia bilatu, haurraren garapen osasuntsu eta osoari kalte egin diezaioketen egoera larriagoak gertatu baino lehen.

Haurrak babesik ezean bakarrik banatuko dira familiaren gunetik, Legeak ezarritakoaren arabera. Halaber, baldin eta, familiak, bere osotasunari eusteko beharrezko ahalegina egin ostean, haurra behar bezala zaindu ezina agerian geratzen bada, haurra familiaren gunetik banatuko da.

Legeria berriak hobetsi dituen kontzeptuek ardatz eta gida izan behar dute Haur-gazteen eta Familiaren eremuan diseinatzen diren politiketarako.

2.—Arrisku-, desbabes- eta babes-egoerak

Arrisku-egoera

Egoera hau 1/96 Legeko 17. artikulua definitua da: adingabekoaren garapen pertsonal edo gizartereko kalte egiten diona baina Legearen aginduz tutoretza bereganatzea eskatzen ez duena.

Hau da, horrelako egoeretan adingabekoak jasan behar duen kaltea dago baina kalte hori ez da umea familiaren gunetik banatzea zuzitzeko bezain larria.

Desbabes-egoera

Kode Zibileko 127. artikulua honela definitzen du egoera hau: egitatez egiten dena; nahita edo nahi gabe familiak ez ditu betetzen haurren babesarako betekizunak, adingabekoak babesteko legeek ezarriak, eta haurrak beharrezko laguntza moral, afektibo edo materialik gabe geratzen dira. Hori guztia gertatuz gero, desbabes-egoeraz egin dezakegu berba.

Babes-egoera

Egoera hau arrisku-egoeraren antzekoa da. Arriskuarenean, inguruabar bereziak direla eta, beharrezko ikusten da haurra familiaren gunetik behinean banatzea, edo guraso edo tutoreek eskatuta, edo epaileak legez behar denean horrela erabakitzen duenean.

3.—Eskuhartzet mailak: Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak-Gizarte Zerbitzu Especializatuak

Lehenengo atalean aipatutako Abiaburu Artezkariak eta haurren munduan tradizio luzea duten herrietako haurrak babesteko politikek azpimarratzen dute adingabekoa bere «inguruan» eta «ingurutik» zaindu behar dela.

Hori horrela ulertuta eta horren ondorioz, bai prebenitze mailan bai balizko arriskuan, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak (aurrerantzean OGZ) dira lehenik esku hartu behar dutenak.

Adingabekoarekiko, beronen familiarekiko eta harekin lotuta dauden eremuekiko lana askotarikoa eta denbora asko eskatzen duena dela eta,

del Código Civil y Ley de Enjuiciamiento en materia de Adopción y Acogimiento Familiar.

Más recientemente la Ley 1/96 de 15 de enero de Protección Jurídica del Menor y modificación parcial del Código Civil y de la Ley de Enjuiciamiento Civil, además de remitir a los Catálogos de los Derechos de la Infancia recogidos en los Tratados Internacionales ratificados por España, positiviza y unifica en el actual sistema jurídico una serie de derechos básicos del Menor, señalando expresamente la necesidad de que las Administraciones Públicas faciliten a los menores la asistencia adecuada para el ejercicio de los mismos.

En este sentido, se formulan los Principios Rectores para la correcta actuación de los poderes públicos, concretándose en:

- La supremacía del interés del menor.
- La prevención de todas aquellas situaciones que puedan perjudicar su desarrollo personal.
- El mantenimiento del menor en el medio familiar de origen, salvo que no sea conveniente para su interés.
- Su integración familiar y social.
- La objetividad, imparcialidad y seguridad jurídica en la actuación protectora, garantizando el carácter colegiado e interdisciplinar en la adopción de medidas.
- Sensibilizar a la población en general ante situaciones de indefensión del menor.
- Promover la participación y la solidaridad social.

En otros países de nuestro entorno, con mayor tradición en lo que a protección de menores se refiere, se parte de principios idénticos y se señala cómo el objetivo esencial del sistema de protección infantil ha de ser proteger al niño, pero en base a mantener y apoyar la unidad y estructura familiar, cuando sea lo apropiado, por medio del aporte de servicios dirigidos a estabilizar la situación familiar y reforzar a los padres para cumplir con sus responsabilidades parentales con los hijos.

Todo esto supone la necesidad de realizar un esfuerzo importante en el desarrollo de políticas preventivas y de intervención precoz ante situaciones de desorganización y desestructuración familiar, evitando su deterioro y favoreciendo una adecuada resolución, antes de que se produzcan situaciones más graves que pudieran perjudicar al desarrollo sano e integral del menor.

La separación del menor del núcleo familiar, solo deberá llevarse a efecto en aquéllos supuestos de desamparo según lo establece la Ley y en aquéllos que, después de realizado el esfuerzo suficiente para preservar la integración familiar, quede demostrado la imposibilidad de cambio en la familia para que el menor sea atendido adecuadamente.

Los conceptos que propone la nueva legislación deben ser, eje y guía de cualquier política que se diseñe en el ámbito de la Infancia-Juventud y Familia.

2.—Situaciones de riesgo, desamparo, guarda

Situación de Riesgo

La Ley 1/96, en su artículo 17, la define como aquellas de cualquier índole que perjudiquen el desarrollo personal o social del menor y que no requieran la asunción de la tutela por ministerio de la Ley.

Es decir, se trata de situaciones caracterizadas por la existencia de un perjuicio para el menor que no alcanza la gravedad suficiente para justificar su separación del núcleo familiar.

Situación de Desamparo

El artículo 172 del Código Civil, considera como situación de desamparo la que se produce de hecho, a causa del incumplimiento voluntario o no de los deberes de protección establecidos por las leyes para la guarda de menores, quedando éstos privados de la necesaria asistencia moral, afectiva o material.

Situación de Guarda

Estas situaciones son asimilables a las de riesgo, en las que por circunstancias especiales, se considera preciso una separación provisional de su núcleo familiar, bien por demanda de los padres o tutores, o cuando así lo acuerde el Juez en los casos en que legalmente proceda.

3.—Niveles de intervención: Servicios sociales de base - Servicios sociales especializados

Tanto en los Principios Rectores a los que hemos hecho mención en la parte primera, como en las políticas de protección del menor al uso en países con probada tradición al respecto, enfatizan en la atención al menor «en» y «desde» su propio entorno.

Entendido ésto así, su consecuencia no es otra que tanto a nivel de prevención como en situaciones de supuesto riesgo, son los Servicios Sociales de Base (en adelante S.S.B) quienes han de intervenir en primera instancia.

Dado que el trabajo con un menor, su familia y demás ámbitos relacionados con él, es complejo y de gran dedicación de tiempo, es necesari-

beharrezko da Gizarte-hezkuntzazko Eskuhartzeko Taldeak direlakoek parte hartzea. Taldeok, ekintzarako baliabide bezala ulertu behar baitira, OGZen menpeko dira.

